

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 2015erako gastuaren muga 3.420 milioi euroan finkatu du, aurten baino 15 milioi gehiago

*Foru Komunitaterako aurreikuspen ekonomikoek BPGaren % 2ko igoera eta enpleguaren % 1ekoa iragartzen dute*

Viernes, 19 de septiembre de 2014

Nafarroako Gobernuak 2015erako finantzakoa ez den [gastuaren muga](#) 3.420,3 milioi euroan finkatu du; zifra horrekin, 2014koa baino zerbait handiagoa den gastu publikoaren mailari eusten zaio, nahiz eta erreforma fiskalean aurreikusitako herritar nahiz enpresetarako zergak murriztu eta baita defizitaren helburua betetzeko zor-jaulkipena ere.

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilari Lourdes Goicoecheak prentsaurrekoan azaldu du gastu-gailur "errealista eta ezin hobea" dela gauden garairako, "hasiberria" den susperraldi ekonomikoa pixkanaka ikusten ari baita.

La cuantía se ha fijado a la vista de las previsiones macroeconómicas para Navarra, las estimaciones sobre la recaudación del año próximo y las obligaciones de déficit y deuda establecidas. Además, se ha tenido en cuenta la rebaja de impuestos previstos en la reforma fiscal planteada por el Gobierno de Navarra.

### Aurreikuspen makroekonomikoak

Zehazki, Foru Gobernuak kalkulatu du Barne Produktu Gordina (BPG) % 2 haziko dela Nafarroan datorren urtean; kalkulu "zuhurra" da eta beste erakunde batzuek –Hispalink eta BBVA, adibidez–, aurreikusten dutenaren azpitik dago (% 2,5). Alde horretatik, gogoratu behar da, ekonomiak lehen seihilekoan zer jokabide ona izan duen ikusita, ekoizpen industrialean eta esportazioetan bereziki indartsua, Foru Gobernuak bigarren seihilekorako BPGaren hazkunde-aurreikuspena 1,1etik % 1,5era igotzea erabaki zuela iragan astean.

Joera horren emaitza da, Gobernuak enplegua ere % 1 igoko dela aurreikusten duela; portzentaje hori handitu ahalko zen hazkundeak "atzeraelkadura positiboaren efektua sortzen du eragile ekonomikoen



Gobernuak diru-sarrerak zuzeneko eta zeharkako zergen bidez handituko direla aurreikusten du.

konfiantzan izandako hobekuntzekin", lehendakariordeak aipatu duenez.

### **Diru-bilketa handitu da**

Aurreikuspen makroekonomikoen arabera, Nafarroako Gobernuak finantzakoak ez diren diru-sarreretan, guztira 3.312,61 milioi euro biltzea espero du, iaz baino % 3,82 gehiago (121,99 milioi). Kopuru horretatik, 3.102,49 milioi zuzeneko eta zeharkako zergei dagokie (% 2,26 igo dira), eta beste 210,12 milioi (% 34,20 gehiago) tasei eta beste diru-sarrera batzuei.

Finantzakoak ez diren diru-sarrerei, Nafarroako Gobernuak zor-jaulkipenekin finantzatuko duen beste 128,2 milioi euro gehitu behar zaizkie. 2015erako finkatutako % 0,7ko defizitaren helburua betetz, kopuru hori ekitaldi honetan finantzatutakoa baino % 30 gutxiago da (56,81 milioi). Azkenik, aurreikusitako diru-sarrera guztiei 20,57 milioi euro kendu behar zaie; azken zenbateko hori kontabilitate nazionalako doikuntzei eta Abiadura Handiko Trenari dagokie.

Horrekin guztiarekin, 2015erako gastuaren muga 3.420.299.042 euro da, hau da, ekitaldi honetan baino % 0,43 gehiago (14,74 milioi euro); igoera "garrantzitsua" da, lehendakariordeak adierazi duenez, kontuan hartuz aldi berean zergak jaisten direla (71 milioi), eta zor-jaulkipenengatiko finantza-mailako diru-sarrerak ere 56,81 milioi euro gutxiago izango direla.

"Defizit eta zorraren gure konpromisoari aurre egin behar diegu, baina, aldi berean, ekonomia sustatu eta enpleguaren alde egin behar dugu. Horregatik –amaitu du lehendakariordeak– gure erreforma fiskalarekin herritar guztien presio fiskala murriztea proposatu dugu, tarte ertain eta txikietan eragin handiagoa izanik. Herritar eta enpresetarako diru eta likidezia handiagoa zirkulazioan uzten dugu eta, aldi berean, gastuaren gailurra handitzen Nafarroako zerbitzu publikoak finantzatu eta haien kalitateari eusteko".